

Ultraeskuina eta esperantza



Gorka Moreno
Márquez
IKUSPEGI-EUSKAL
IMMIGRAZIOAREN
BEHATOKIKO
ZUZENDARIA

Euskal Immigrazioaren Behatokiak urtero egiten duen etorkinen inguruko jarrera ikerketan –Barometroa delakoan– ideia hauek gailendu dira: diru-sarrera gutxien duten pertsonen jarrera ezkorrena agertzen dute etorkinen aurrean. Ostera, egoera ekonomikoa hobereanean daudenean iritzi irekierak azaltzen dituzte.

Ez da harritzekoa. Ondo daudenean etorkinen etorrerak ez die inongo kalterik sorrarazten lan-munduan sartzeari begira, gainera, baliabide ekonomikoei esker etorkinez baliatu daitezke euren beharrak asetu ahal izateko, adibidez, etxeko lan edota zainketa pertsonaletarako. Beste era batera esanda, abantaila asko eta kalte gutxi. Gizarte egituraren beste muturrean daudenean, aldiz, kontrakoa gertatzen zaie, etorkinak lehiakide dira lanpostu prekarioenak lortzeko edota zenbait gizarte-prestazio eskatzeko.

Elementu hori oso garrantzitsua da ultraeskuinaren gorakada ulertzeko, baita planteatu dituzten jarrera xenofobo eta arrazistak ere ulertzeko, Europan zein Ameriketako Estatu Batuetan.

Gero eta gehiago dira globalizazio eta lan-merkatuaren tendentzia berrietatik at gelditzen ari direnak, lan merkatuan soberakinak baino ez direnak eta euren bizitza osoan aukera gutxi izango dutenak egoera horretatik irteteko. *Prekariadoa* da talde horren izena. Egonkorra eta segurua zen testuingurutik zaurgarritasuna eta

behin-behinekotasuna nagusi diren errealiterara pasa dira.

Ezkerreko alderdiek zein sozialdemokrazia klasikoak ez diete erantzunik ematen euren beharrei, klase ertain aurrerakoien tokia hartzen ari dira. Sortu den hutsune horretan ultraeskuinak bere espazioa bilatu du, *prekariado* horrek entzun nahi dituen hitzak erabiliz hain zuzen ere: zuek zarete lehentasuna, mugak itxiko ditugu “besteak” ez etortzeko eta “besteen” produktuak ez sartzeko. Hots, kasu egiten dien norbait behar dute, ez goitik begiratzen dienaren sermoia: “Arrazista hutsa zarete”.

Ez dut uste, zintzoki, Donald Trump AEBetan edota Marine Le Pen Frantzia bozkatzeko duten gehienak arrazistak direnik, asko jota xenofobia posizionala erakutsi dezakete, baina ez ideologikoa. Hori argi izan beharko genuke gizartearen sektore hori mespretxuz begiratzen dugunean, euren ikuspuntua zalantzan jarri beharrean indartzen ari garelako, eta Trump eta enparauei aukera gehiago eskaintzen diegulako. Partida beste jokaleku batean dago eta ez badugu hori ikusten, ultraeskuinaren gorakada etengabekoa izango da.

Ez dezagun ahaztu, ultraeskuinak egoera zaurgarrian dauden pertsonen entzun nahi dutena eskaintzen diela: “Esperantza”. Ez gehiago, ez gutxiago ere. ■

Aholku berri on



Edu Zelaieta
IDAZLEA

Erraz ematen ditugu aholkuak. Aisa eskaintzen ditugu geuk gauzatzen ez ditugun hitzak. Eguneroko praktika zabalduz hartzen ahal da aholkularitza, diruarenganako fedetsua ia bezain unibertsaltzat. Baita urte zaharra eta urte berria elkarrekin topo egiten duten egunotan ere.

Aholkuak oparitzen ditugu Eguberriak ospatzeko-edo antolatzen diren otorduetan. Denbora luzean egon gaitezke mahai berean bata bestearen ondoan, eta hizpide egokia aukeratzea ez da beti samurra izaten. Aholku ematea ohiko baliabide gertatzen ohi da halakoetan, bereziki elkarriketan parte hartzen ez duten pertsonen

kontura: hain da tentagarria besteen bizimodua konpontzea.

Praktika hedatua ez ezik, zaharra ere bada, nonbait, aholku ematea. Izan ere, duela 2.600 urte inguru, mendebaleko filosofiari hasiera eman omen zion Tales Miletokoak baieztapen borobil bat utzi zigun alde horretatik: “Nork bere burua ezagutzea da bizitzako gauzarik zailena, eta errazena besteei aholku ematea”.

Filosofiak gero eta balio apalagoa duen honetan, hezkuntza plangintza berrituak lekuko, segur aski indar betean segituko du bizitzako gauzarik errazena omen den horrek. Beraz, zorionak eta aholku berri on! ■